

Osakidetzaren erronkak eta proiektu estrategikoak

2017 2020



Osakidetzaren
erronkak eta proiektu
estrategikoak

2017
2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Edizioa: 2017ko abendua

Editatzen du: Osakidetza. Araba kalea, 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz (Araba).

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Osakidetza

Internet: www.osakidetza.euskadi.eus

e-maila: coordinacion@osakidetza.eus

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Hitzaurrea	4
Helburuak	5
Hausnarketa Estrategikoa: Osakidetzaren xedea, ikuspegia eta balioak	6
Osakidetzaren interes-taldeak	8
Osasun Sailaren XI. Legegintzaldirako Ildoak eta Helburuak	9
Erronkak eta proiektu estrategikoak	11
1. Pertsonak arretaren ardatz nagusi, eta desberdintasunak osasungintzan	11
2. Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea	20
3. Integrazio asistentziala eta kronikotasuna	24
4. Profesionalak kudeaketa kultura korporatiboa sortzen	33
5. Kudeaketa aurreratu jasagarria eta osasun sistemaren modernizazioa	40
6. Berrikuntza eta ikerketa	48
Eranskinak	54

*“Helburuak ez dira xede bat, noranzko bat baizik.
Ez dira aginduak; konpromisoak dira.
Ez dute etorkizuna erabakitzen; bitartekoak dira,
etorkizuna sortzeko ahalmena duten baliabideak eta
energia mugiarazteko balio dutenak.”*

Peter Drucker

Aurkezpena

Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako sustatutako eta gobernu-programan jasotako politika orokorren bidez garbi geratzen da pertsonen osasunak eta ongizateak erabateko lehentasuna izaten jarraitzen dutela bere ekintza politikoaren barne. Osasun Sailaren politikak garatzeko gida-liburua den 2013-2020 urteetarako Osasun Plana bide-orria ere bada euskal osasun-sistema indartzeko egitasmoan eta, aldi berean, Euskadin bizi diren pertsona guztiakin sinatutako kontratu soziala.



Osasun Sailaren XI. Legegintzaldirako ildo estrategikoetan lehentasunezkatzat jo dira pertsonen osasuna eta ongizatea lortzea, osasun-sistema publiko baten alde egitea eta Osakidetza moderno bat osatzeko konpromisoa, euskal gizartearekin engaiatuko dena eta bere onespena eta konfiantza lortuko dituena.

Horiexek dira, izan ere, gure erakundeak aurre egin beharko dien Erronken eta Proiektuen ardatz nagusiak, praktikan jarri beharko ditugunak hainbat proiekturen bitartez. Osakidetzan ardura postuetan gaudenon erantzukizuna da estrategiarik egokiena ezartzea geure buruari jartzen dizkiogun helburuak erdiesteko. Eta hori ezinezkoa litzateke gure profesionalen ezagutza eta ekarpenik gabe, hain zuzen ere, bata bestearen laguntza behar dugulako norabide beretik eta modu koordinatuan aurrera egin ahal izateko.

Dagoeneko hasita dugun integrazio prozesuarekin jarraitu behar dugu, eta ahalegina egin ere, bai egiturak, bai antolatze modua egokitzeko. Horrez gain, arretaren jarraitutasuna bermatuko duen kalitatezko zerbitzua eman behar dugu, eta baliabideak koordinatzen lagunduko diguten proiektuak bideratu, behar bezala erantzun ahal izateko gero eta bi-zi-itxaropen luzeagoa eta, beraz, zainketa-behar gehiago duten herritarrei.

Eutsi egin behar diogu, halaber, hartutako konpromiso sozialari: prebentzioaren eta osasuna sustatzearen kultura aktibatuz, beste erakunde batzuekin elkarlanean arituz, hizkuntza-normalizazioan eta berdintasunean aurrerapausoak ematen direla bermatuz, eta berrikuntzarekin eta ikerketarekin lotutako proiektuak bultzatuz; garrantzi handiko asmoak horiexek, bai herritarren eguneroko premiei arreta hobea egiteko, bai Osakidetzak jomugan duen prozesu eraldatzailea sustatzeko.

Eta hori ez ezik, aprobeztatu behar ditugu ere gaur egungo Osakidetzaren eratze-prozesuan eragina izan duten antolamenduko ezaugarriak, eta aldi berean, kudeaketa aurreratuaren eta aurrerapen teknologikoen arloetan etengabe ikasteko bitartekoak jarri. Ahaleginak bateratzeko gai izan behar gara, eta ikuspegi korporatibo batetik, sarean lan egiteko ere. Izan ere, sarean lan eginez eta pertsonen eta taldeen arteko konexioak biderkatuz aukera izango dugu proposatutako helburuak efizientziaz eta modu eraginkorrean lortzeko.

Asmo handiko erronkak eta proiektuak dira, baina ziur nago, erakunde hau osatzen dugunon esfortzuarekin eta laguntzarekin eta herritarren parte-hartzearekin, lortuko dugula harro sentiaraziko gaituen Osakidetza bat, herritarren osasuna hobetzearen xedea betetzen duena.

Mª Jesús Gemma Múgica Anduaga
Zuzendari Nagusia

Hitzaurrea

Hausnarketa estrategiko honetarako, abiapuntu gisa hartu dira Osasun Sailak Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zituen XI. Legegintzaldirako Ildo Nagusi orokorrak. Aurreko legegintzaldirako ezarritako ildoen bide beretik doaz aurten proposatutakoak, eta aldi berean, 2013-2020 Osasun Planean oinarritu dira.

Ildo berrietan, Osasun-sistemaren jardueraren ardatz nagusia pertsonak direla zehazten da, eta osasun kontzeptuaren eta beregan eragina duten faktoreen ikuspegi zabala aurkezten da. Bertan jasota dago beharrezkoa dela era koordinatuan jardutea herritarren osasunean esku hartzen duten beste eragile batzuekin edota herritarrekin beraiekin, parte-hartze aktiboa izan dezaten.

Horiez gain, Osakidetzako langileen ezagutza eta aurreko Plan Estrategikoaren Ildo eta Helburuen lorpenarekin ikasitakoak baliatu dira, bai eta planeko Ekintzen aurre-rapen-maila aztertzean ondorioztatutakoak ere.

Aintzat hartu dira, halaber, Osakidetzarentzat garrantzitsuak diren beste informazio-iturri batzuk, hala nola Osasun Plana, Kontratu Programa, Berrikuntza eta Ikerketa Estrategia, Arlo soziosanitariorako estrategia, eta gure erakundeetan ezarritako Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko ereduarekin egindako kanpo ebaluazioen osteko diagnostikoa.

Hausnarketa horrek Xedea, Ikuspegia eta Balioak berraztertzea eraman gaitu. Horretarako, Osakidetzaren aurreko definizioak kontuan hartu genituen, baita Osakidetzako erakundeek beretzat hartutakoak eta haien balio erantsia, xede honekin: mezuak eguneratu eta bateratzea, denek bere egin ditzaten, eta argitzea nor/zer garen eta zer bide jorratuko dugun.

Osakidetzak, beraz, bere gain hartzen ditu Osasun Sailaren gidalerroak eta bere Erronka gisa planteatzen ditu, gainditu beharreko desafio bezala. Erronka horiek arlo konkretura eramateko Proiektu multzo bat sortu du Osakidetzak, eta ardura-maila desberdinetako pertsonen eskuetan jarri ditu (Erreferenteak eta Lider operatiboak). Horiek denek, kasuan kasuko proiektuko taldearen laguntzarekin, martxan jarriko dituzte proiektuak lehentasunezkoztat jotako zenbait Ekintzaren bitartez –planaren indarraldian zehar egokitu edo zabaldu daitezkeenak–. Gainera, proiektuetako liderrek eta taldeek kronograma bat zehaztu eta adierazle bidezko sistema bat ezarriko dute.


Prozesuaren barne, hortaz, adierazle-sorta baten bidez Erronken eta Proiektuen jarraipena egiteko nahiz horiek doitzeko sistema bat antolatuko da, Jarraipen Batzorde baten laguntzarekin. Horri esker aurre-rapen-maila eta bidezko diren doitze-ekintzak gainbegiratu ahal izango dira. Batzordea aholkularitza-lanetan ere arituko da Zuzendaritzarekin, kritikotzat jotzen diren zenbait alderdi korporatibori dagokionez.

Bestalde, funtsezkoa da Erronken eta Proiektuen zabalkundea eta komunikazio-lanak egitea. Hori dela-eta, prozesuan Osakidetzaren interes-taldeen azterketa egin zen, parte hartze eta komunikazio maileak finkatuz eta antolatuz. Zuzendari, arduradun eta teknikariei laguntza eskatu zitzairen lan horretarako, bai Osakidetzakoei, bai Osasun Sailekoei. Eta horrez gain, aurreikusita dago hainbat World Cafe saio egitea paziente taldeekin, erakundeekin, profesionalekin, hornitzaileekin eta bestelakoekin ere, iritziak aldatzeko eta/edo prozesuaren emaitzaren berri emateko.

Helburuak

Kudeaketa-sistema bat garatzea, horren bitartez Osakidetzaren estrategia 2017-2020 eperako Zehaztu, Hedatu eta Jakinarazteko eta horren Jarraipena egiteko.

Dokumentu honetan Osakidetzako Zuzendaritzak egindako Hausnarketa Estrategikoaren oinarriak eta ondorioak jaso dira. Proiektuaren barne, kudeaketa-sistema oso bat garatzea da asmoa, eta zehaztea zer pauso eman behar den plana, horren jarraipena eta hobekuntza ere zehaztu, zabaldu eta garatzeko.



Hausnarketa Estrategikoa

Osakidetzaren xedea

Pertsoneri arreta ematea eta haien osasuna sustatzea, jasagarria den osasun-sistema publiko batekin gizarteari balio erantsia emanaz eta **osasun-emaitzekin** eta **ezagutza sortzearekin** konpromisoa duten profesional batzuen laguntza baliatuta.

Osakidetzaren ikuspegia 2020

Osakidetzak, **pertsona ardatz hartzen duen arreta integratuko** eredu batekin **sarean lan eginez kultura korporatiboaren** bidean aurrera egiten duen erakundea izan nahi du, **Lehen mailako arretak duen balioa sustatzen eta Ospitaleko arreta etorkizuneko erronketara egokitzen duen** erakundea, **erreferentziazko goi-mailako espezializazioa kontzentratzearen** alde egiten duena.

Osasun-emaitzei eta eraginkortasunari dagokienez balioa zerk ematen duen bere buruari galdetzen dion erakundea izan nahi du, eta bereziki ahalegintzen dena **pazienteen erantzunkidetasuna** bilatzen eta **herritarren eta beste interes-talde batzuen parte-hartze aktiboa** baliatzen.

Enpresa osasungarriaren eredian oinarritutako erakundea, beraz, **lidergo partekatuaren** aldekoa dena eta **profesionalen konpromisoan** uste osoa duena, erakundearen aldaketaren eragile aktiboak diren heinean.

Estatu mailan zein Europa mailan erreferentea den erakunde bat, ezagutzaren sortzaile den eredu asistentziala ezartzeagatik eta berritzeko bere gaitasunagatik.

Osakidetzaren balioak

Zerbitzu publiko izateko bokazioa

Konpromisoa hartuta dugu unibertsaltasunean, ekitatean, elkartasunean eta kalitatean oinarritutako osasungintzarekin, euskal gizartearentzat balioa sortzeko eta haien osasun-beharrak asetzeko, zerbitzu publikoaren eta erantzunkidetasunaren etikatik.

Pertsona ardatz hartzen duen arreta

Pertsonen duintasuna errespetatzen dugu eta haien bizitza proiektuak eta bizi-kalitatea babesten ditugu, herritarren beraien parte-hartzearekin.

Profesionaltasuna, erantzukizuna eta humanismoa

Oso aintzat hartzen dugu bikaintasuna lanean, profesionalen konpromisotik eta inplikaziotik datorrena, pertsonen beharreganako errespetuzko jarrera eta jokabideak mantentzen dituzten horiena.

Talde-lana

Helburu eta proiektu berak ditugu, eta lana da gure ekarpena, kolaborazioaren eta kide izatearen zentzuaren bitartez sortu ahal izateko.

Berrikuntza eta parte-hartzearen kultura

Aintzat hartzen ditugu ezagutza eta berrikuntza, sinetsita parte-hartzearekin lortuko dugula emaitzak modu eraginkorragoan eta jasangarriagoan hobetzen lagunduko digun hazteko indarra.

Gardentasuna eta gobernu ona

Konpromisoa hartzen dugu ingurune sozialarekin, gizartearen arauak eta oinarri etikoak errespetatuz, eta gardentasunarekin eta kontu-ematearekin konfiantza sortuz.



Osakidetzaren interes-taldeak

Hona hemen Hausnarketa Estrategikoan Osakidetzak aintzat hartutako Interes-taldeak:

- Eragile zientifiko eta teknologikoak.
- Garapen agentziak.
- Ararteko.
- Pazienteen, bizilagunen elkarteak.
- Elkarte zientifikoak eta profesional sanitarioen elkarteak.
- Udalak (Gizarte Zerbitzuetako sailak, Osasun Publikoa, Kirola, Kultura...).
- Zentro Teknologikoak.
- Elkargo profesionalak (Medikuntza, Erizaintza, Farmazia...).
- Osasun Saila (Osasun Publikoa eta Adikzioak; Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioa; Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioa Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioa...).
- Osasun Saila (Aholku Kontseilu eta Batzordeak, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua...).
- Osasun Saila [Osasun Berrikuntza eta Ikerketaren Euskal Fundazioa (BIOEF), Kronikgune].
- Beste Sail batzuk: Ogasuna eta Ekonomia, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua, Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak, Lana eta Justizia, Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika...
- Diputazioak (Gizarte Zerbitzuetako Sailak, Kirola, Kultura...).
- Enpresak, Bitartekotza erakundeak, Co-society.
- Euskalit, Innobasque.
- Senideak, zaintzaileak eta laguntzaileak.
- Ikerketa Sanitarioko Institutuak (Biocruces, Biodonostia, Bioaraba).
- Komunikabideak.
- Hainbat Ministerio: Osasuna, Hezkuntza, Enplegua...
- Sindikatu- eta enpresa-erakundeak.
- Ziurtapen erakundeak eta enpresak (DNV, AENOR...).
- Eusko Jaurlaritzaren erakundeak: HABE, HAEE, Emakunde, Osalan...
- Beste osasun-zerbitzu eta -sistema batzuk.
- Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- Pertsonak - Osakidetzako zuzendariak.
- Pertsonak - Pazienteak.
- Pertsonak - Herritarrak.
- Pertsonak - Osakidetzako profesionalak.
- Hornitzaileak.
- Gizartea.
- Unibertsitateak.

Osasun Sailaren XI. Legegintzaldirako Ildoak eta Helburuak

1

Pertsonak arretaren ardatz nagusi, eta desberdintasunak osasungintzan

- Euskal Herrian osasun-sistema unibertsala, publikoa eta kalitatezkoa bermatzea eta hobetzea.
- Desberdintasunak gutxitzea osasungintzan.
- Errespetatzea pertsonen arreta euskaraz jasotzeko duten eskubidea.
- Osasun-zerbitzuen antolakuntza eta kalitatea hobetzea, arreta-epeak arintzeko.

2

Prebentzioa eta osasuna sustatzea

- Diziplina anitzeko ikuspegi batetik, prebentzioaren eta bizimodu eta bizi-ohitura osasungarrien alde egiten jarraitzea.
- Minbiziaren eta GIBaren kontrako ekimenak hobetzea eta areagotzea.

3

Zahartzea, kronikotasuna eta mendekotasuna

- Sakontzea Lehen mailako arretaren garapenean eta Lehen mailakoaren eta Ospitalekoaren arteko integrazio asistentzialaren estrategian.
- Osasun mentaleko arretaren eremuan aurrera egitea.
- Plan onkologiko integrala martxan jartzea.
- Gaixotasun neurodegeneratiboetarako heltzeko estrategia.
- Osasun-sistema paziente kronikoen beharretara egokitzea.

4

Osasun-sistemaren jasangarritasuna eta modernizazioa

- Preskripzio eraginkorra eta kalitatezkoa sustatzea.
- Errezeta elektronikoaren ezarpena burutzea eta elkarreragingarritasunean aurrera egitea.
- Gehiago erabiltzea IKTak eta 'medikuntza ez-presentziala'.
- Goi-mailako espezializazio zerbitzuak bateratzea.

5


Profesionalak

- Enpleguaren kalitatea hobetzea, egonkortasuna areagotuz eta behin-behinekotasuna murriztuz.
- Gizarte-elkarrizketa sustatzea.
- Horniketa/hautaketa prozesuak berrikustea, ebazteko denborak arintzearen.
- Lan eskaintza publiko berri baterako deialdia egitea, langile finkoen kontsolidazioarako.
- Zerbitzu elebidunen eskaintza zabaltzen jarraitzea pazienteen lehentasunezko hizkuntzari erantzun ahal izateko, eta aurrera egitea gure profesionalen hizkuntza arloko trebakuntzarekin.
- "Zero Tolerantzia" jomuga izanda, lanean ekitea profesionalei egindako erasoei aurre egiteko.
- Langileen garapen profesionala bermatzea eta bultzatzea.
- Osakidetzako Genero berdintasunerako Plana lantzea.

6

Berrikuntza eta ikerketa

- Amaiera ematea Osasunean ikertzeko eta berritzeko estrategia 2020 (I+G+b) deritzona zabaltzeko lanei.
- Sustatzea eta lehentasunezko arlotzat hartzea biozientzietan-osasunean egindako ikerkuntza.



Erronka:

**Pertsonak eta
osasun-emaitzak,
arretaren ardatz**

1

1.1

Unibertsaltasuna eta ekitatea osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean

Egoera

Osasunaren baldintzatzaile sozialen azterketan, desoreka sozialen garrantzia eta 'kausen kausetan' esku hartzearen beharra nabarmentzen dira. Osasungintzaren arloak lagundu egin beharko luke desberdintasun horiek leuntzen, eta ahalegindu zerbitzuak pertsonaren arabera egokitzen eta zerbitzu horiek herritar guzti-guztientzat eskuragarri daudela bermatzen, inor diskriminatu gabe.

Helburua

Pertsona orok osasun-zerbitzuak eskuragarri dituela bermatzea, unibertsaltasun, ekitate eta kalitatearen oinarriei men eginez, eta bide horretatik osasungintzan desberdintasunak murriztea eta genero ikuspegiaren alde egitea, baita gizatalde behartsuen eta babesgabeen alde eta gizarteak baztertzeko arriskuan dauden gizataldeen alde ere.

Acciones

- 1.1.1 Sexuaren aldagaia txertatzea Osakidetzako Informazio-sistemen txostenetan eta ustiapen-tresnetan. (4.5.8)
- 1.1.2 Zerbitzuak aztertu eta egokitzea Osasun Mapek erakutsitako emaitzen arabera.
- 1.1.3 Behar bereziak dituzten haurrei arreta integratua emateko prozesua (PAINNE) hedatzea.
- 1.1.4 Buru-nahasmendua duten pazienteen eta beste paziente talde batzuen desestigmatizazioa bultzatzea.
- 1.1.5 Tratu txarrak, mutilazioa, hauskortasuna eta enparauei buruzko proiektuak garatzea eta horietan beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

1.2

Arreta humanizatzea

Egoera

Gure pazienteei ematen diegun arreta humanizatzea, aintzat hartuz zerbitzuen diseinua, zerbitzuok norentzat diren, arretaren pertsonalizazioa, komunikazioa eta tratua, beren esperientziatik abiatuta.

Helburua

Asistentzia humanizatzea, arreta pertsonalizatuan aurrera eginez eta zaintzailea kontuan hartuz.

Ekintzak

- 1.2.1 Giza Faktorea proiektua ezartzea, pazientearen arretan jarrera eta jokabide humanizatuagoak bultzatzeko. (4.4.2)
- 1.2.2 Pazientearen iritzia prozesu asistentzialen diseinuan eta hobekuntzan txertatzea, haren asebetetzearen berri izateko dauden metodoak berrikustea eta errealitate berrietara moldatzea, eta pertsonen/pazienteen ahotsa gureganatzeko metodo berriak planteatzea.
- 1.2.3 Osasun-arreta emateko eremu atseginagoak sortzea eta daudenak hobetzea, pazientearen eta senideen esperientzia hobetu ahal izateko.
- 1.2.4 Behar bereziak dituzten pazienteentzat komunikazio eraginkorrerako beste aukera batzuk bilatzea.
- 1.2.5 Pazientea eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuko (PEAZ) eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuetako (BAE) rola eta arreta eredia berraztertzea eta egokitzea.
- 1.2.6 Lehen mailako arretaren eta Ospitaleko arretaren sistema kliniko-administratiboak bateratzea (zitaziorako leihatila bakarra). (3.2.6)
- 1.2.7 Izaera pertsonaleko datuen eta jarduera asistentzialaren segurtasuna, osotasuna eta konfidentziasuna bermatzea.

1.3

Herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea

Egoera

Osasun-gaixotasun prozesua hobeto ezagutzeak, konfiantza, protagonismoa eta gaixotasunaren beraren kudeaketa sendotu ez ezik, osasun-emaizak hobetzeko ere balio du.

Gure ahaleginen eta arretaren jomugan dauden pertsonen lankidetzeta eta konpromisoa behar dugu. Horretarako, informazio egokia emanaz, herritarrengan osasunaren kultura areagotzen lagundu behar dugu, era horretan lortuko baititugu herritar iritzidunak eta arduratsuak, beren osasunaren zaintzan parte-hartze aktiboa daukatenak.

Beharrezkoa da parte hartzeko kanal gardenak, dinamikoak eta eraginkorrak garatzea, aurrerantzean beste era batera ulertu behar ditugu-eta herritarren, profesionalen eta osasun-sistemaren arteko harremanak.

Helburua

Pertsonak ahalduntzea, bai osasuntsu daudenak (osasunaren zaintza), bai gaixo daudenak (paziente bizia), bere osasun-zainketetan aktiboki parte har dezaten eta gaixotasunaren autokudeaketan erantzunkide izan daitezen.

Herritarren parte-hartzea sustatzea, osasunaren kultura hobetzeko (informazioa), eta bide horretatik, bere iritzia eta esperientziak kontuan izatea zerbitzu eta prozesu asistentzialetan.

Ekintzak

- 1.3.1** 1.3.1 Paziente Bizia programa garatzea Osasun Eskola jardueraren barne, eta berariaz sartzeko programan GIB duten pazienteak, mina duten pazienteak eta beste batzuk.
- 1.3.2** Osasuneko Tokiko Sareak sendotzea eta zabaltzea, elkarlanean aritzeko egiturak izan daitezen, Lehen mailako arretako, Osasun publikoko, Udaletako eta tokiko sektore eta elkarten zerbitzuen artean.
- 1.3.3** Osasun Karpeta eta Webeko aurretiko zitaren funtzionalitateak eta ohiko erabilera zabaltzea. (3.2.10)
- 1.3.4** Osarean-eko zerbitzu-zorroa zabaltzen eta sustatzen jarraitzea. (3.2.2)
- 1.3.5** Parte hartzeko kanal eta egiturak birdiseinatzea, berrantolatzea eta bistaratzea maila bietan (korporatiboa eta zerbitzu-erakundeena), hobeto aritzeko bai koordinazioan, bai herritarrei emandako erantzunean, proaktiboak izanez eta zerbitzuen eskariari aurrea hartuz (PEAZ, BAE, herritarrek sartzeko batzorde eta lan-taldeetan, kasurako Gaixotasun arraroekin, Gaixotasun kardiobaskularrekin, etab.).
- 1.3.6** Boluntariora parte-hartze mota gisa sustatzea (Gobernuz kanpoko erakundeak).

1.4

Lehentasunezko hizkuntza ofizialean arreta ematea

Egoera

Pertsonaren hizkuntza-hautua kontuan hartzea, berezkoa duen eskubidea errespetatzeaz gain, kalitate asistentziala handiagotzea ere bada.

Bestalde, profesionalak duten eskubide bat da beren lehentasunezko hizkuntza ofizialean lan egin ahal izatea. Horretarako, alde batetik, prestazio eta zerbitzu elebidunen eskaintza areagotzen jarraitu behar da, eta bestetik, profesionalak hizkuntzan trebatzen ere bai.

Helburua

Aintzat hartzea herritarrek nahiz profesionalak hautatu duten lehentasunezko hizkuntza –euskara zein gaztelania izan–, prestazio eta zerbitzu elebidunen eskaintza areagotuz eta Osakidetzako profesionalak hizkuntzan trebatuz.

Ekintzak

- Osasun-zerbitzuaren prestazioak hobetzea, paziente eta erabiltzaileak hautatutako hizkuntzaren arabera: zirkuitu elebidunak ezarri eta zabaltzea espezialitate eta zentro gehiagotara; lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa zabaltzen joatea; zerbitzu, unitate eta profesional elebidunen identifikazio sistema hedatzea.
- 1.4.1**
- 1.4.2** Euskara gero eta presentego egitea dokumentazio klinikoan eta historia klinikoan (3.2.3).

1.5

Pazientearen segurtasuna

Egoera

Pazientearen segurtasuna asistentzia sanitarioaren berezko dimentsioa da, izan ere, pertsona orok du eskubidea asistentzia jasotzeko segurtasun mailarik handienarekin. Horregatik da ezinbestekoa asistentzia sanitarioa eman bitartean segurtasun gorabeheren probabilitatea murriztea, pazienteak osasun-sistemarekiko duen konfiantza indartzen delako eta sistema jasangarriago bihurtzen delako. Osakidetzan, 2013-2016ko Pazientearen Segurtasun Estrategia ia osorik bideratu ahal izan da, eta estrategia berri batean sakontzeko asmoa dago 2020 urtera begira.

Helburua

Pazientearen segurtasunaren kultura errotzen laguntzea Osakidetzan, aurretik dauden ekintza-lerroetan sakonduz eta proiektu berri eta garrantzitsuak garatuz.

Ekintzak

- 1.5.1** 1.5.1 Asistentzia sanitarioarekin lotutako infekzioen prebentzioa eta kontrola (genu-zundaketarekin zerikusia duten Gernubideetako Infekzioak barne). Ospitale-azpiegiturei lotutako arrisku mikrobiologikoak minimizatzea.
- 1.5.2** Mikrobioen aurkakoekiko erresistentziei aurre egiteko Europako Planean parte hartzea. Mikrobioen aurkakoekiko preskripzioa optimizatzeko helburua duten Antimikrobianoen erabilera optimizatzeko programak (PROA) programak orokortzea ikuspegi korporatibo batekin.
- 1.5.3** Jardunbide egokiak orokortzea hauei lotuta: kirurgia segurua, haurdunaldi-erditze-erdiberriaroa, erradiazio ionizatzaileak erabiltzen dituzten proba diagnostikoen optimizazioa, medikazioa ematea, erizaintzako zainketak, transfusio-prozesua eta pazienteen identifikazio ezin nahasizkoa.
- 1.5.4** Aurrera egitea kalterik gabeko segurtasun gorabeheren jakinarazte egokian, ikasteko helburuarekin, bai eta kontrako gertaeren kudeaketa zuzenean ere.
- 1.5.5** Pazientea bere segurtasunean inplikatu dadin bilatzea.
- 1.5.6** Pazientearen Segurtasuna sustatzea Larrialdietan.
- 1.5.7** Kontrako gertaeren bigarren eta hirugarren biktimei babesa modu integralean emateko politika korporatibo bat orokortzea.
- 1.5.8** Ospitalean eta desnutrizio arriskuan dauden pertsonekin jardunbide egokiak sustatzea.
- 1.5.9** Pazienteen segurtasuna areagotze aldera, profesionalen arteko komunikazioan eta koordinazioan hobetu beharrekoei heltzea.

1.6

Irisgarritasun asistentziala hobetzea

Egoera

Progresiboki handitzen doan eskari asistentzialak eta biztanleen zahartzeak itxaronaldiak luzatzea eta osasun-arreta atzeratzea eragiten dute. Beharrezkoa da atzeratze horiek kontrolatzea eta leheneste-irizpideak sartzen jarraitzea, itxaron-zerrenden kudeatze eta ebazpenerako.

Helburua

Paziente kopurua eta haien itxaron zerrendetako atzerapenak hobetzea eta egonkortzea, kontsultetan, proba diagnostikoetan, eta bereziki ebakuntzetan, zerrenden kudeaketan kalitate-irizpideak txertatuz.

Itxaron-zerrendak kudeatzeko, planifikatzeko, sortzeko eta kontrolatzeko sistemak hobetzea.

Osasun-zerbitzuen antolaketa eta kalitatea hobetzea arreta-epeak arintzeko (*Kirurgia-prozedura programatu eta ez-urgenteetara iristeko gehieneko epeei buruzko 65/2006 Dekretua*)

Ekintzak

- 1.6.1** Lehen mailako arretaren ebazteko gaitasuna handitzea, batez ere gaixo kronikoei dagokienez.
- 1.6.2** Ospitaleko espezialitateen kontsulthen eskaria egokitzea.
- 1.6.3** Gehiegizko preskripzioa eta proba diagnostikoak errepikatu daitezten saihestea.
- 1.6.4** Kirurgia-preskripzioaren aldakortasuna homogeneizatzea eta hobetzea.
- 1.6.5** Esku-hartzeen balio erantsia ebaluatzea osasun-mailari dagokionez, eta egokitzen jarraitzea kirurgia-indikazioa eta, oro har, praktika asistentziala (pluripatologikoen kirurgia...).
- 1.6.6** Dauden baliabideak ebaluatzea eta optimizatzea, eta horien premia justifikatuta dagoen kasuetan, baliabideak ugaritzea.
- 1.6.7** Itxaron-zerrenden leheneste-irizpideak (klinikoak eta larritasuna) aztertzea (alderdi soziolaboralak, ondorioen pronostikoa, ezintasuna, etab.).
- 1.6.8** Konplexutasun handiko prozedurak zentralizatzea.
- 1.6.9** Zenbait prozesutan itxaron-zerrenda korporatiboak sortzen jarraitzea, herri-tarrek arreta eman diezaieketen edo ebakuntza egin diezaieketen edozein zentrotara jo ahal izateko.

1.7

Osasun-emaizetara bideratutako arreta

Egoera

Osasungintza arloko esku-hartzeek eragina dute osasunean, pazientearen asebetetzean – bizi-kalitateari dagokionez– eta sistemaren eraginkortasunean. Nola jarduera klinikoaren ebaluazioan hala osasun-zerbitzuen ikerkuntzan, agerikoa da jarduera asistentzialaren emaitza osasun-emaizten bidez adierazteko zailtasuna. Hori egia bada ere, azken urteetan ikusi dugu gero eta garrantzitsuagoa dela erabaki klinikoaren eta kudeaketa arlokoen oinarrian jartzea pertsonen osasunean daukaten eragina.

Osasun-sistema publikoa garen heinean, guri dagokigu ebaluatzea zerk egiten dien benetako ekarpena paziente-pazienteari eta gizarteari. Testuinguruak, aldaketa demografikoak, mendekotasunak eta kronikotasunak gora egiteak, bai eta praktika klinikoaren eta horren emaitzen aldakortasunak ere, beharrezkoa egiten dute azterketa zehatza-koak egitea jakiteko zein esku-hartzek ematen dituen emaitza hobeak biztanleriaren osasunean.

Balioan oinarritutako medikuntzak berekin dakar, baita ere, sistemak pazientearekin duen harremana eraldatzea. Pazienteak bere osasunean izandako emaitzen pertzepzioa neurtzeak derrigortu egiten gaitu kontuan hartzera pazientearen iritzia, arreta-prozesua birdiseinatzeke orduan eta, aldi berean, pazienteak berak prozesu barruan duen zeregina ere. Horretarako, Pertsonarengan Oinarritutako Arretaren (POA) kontzeptua sendotu beharra dago.

Helburua

Osasun Sailarekin koordinaturik, gauzatutako jarduerak neurtzea osasun-emaizten arabera, eta ahal den baliorik handiena emateko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.

- Pazienteari balio handiena ematen dioten esku-hartze sanitarioak identifikatzea, eta horren arabera, zerbitzu-zorroa egokitzea.
- Zerbitzu-emaiteari buruzko informazioa jasotzea, eta zehaztea zer erakundetan eta zer maila asistentzian eman behar diren zerbitzuok, osasun-emaizak optimizatzen hasi.

Ekintzak

- 1.7.1 Sistematika bat garatzea jarduera asistentzialaren eta prebentzioaren ebaluazio esperientzien barruko azterketa baterako –ebaluazioak osasun-emaizten arabera eginez–, eta esperientzien inbentario bat egitea.
- 1.7.2 Osasun-emaizten araberrako ebaluazioan, arrakasta kasuen kanpoko zaintza egitea.
- 1.7.3 Ebaluazio metodologiak, tresnak eta estandarrak identifikatzea, profesionalak bere egunerokoa orokortu ditzaten (5.1.4).

- 1.7.4** Aztertzea eta hautatzea prozedura eta patologia zehatz batzuk, behin ikusita horietako zeinetan den egokiago identifikatutakoak aplikatzea.
 - 1.7.5** Bidezko diren kontzeptu-probak edo pilotuak egitea zerbitzu-erakundeetan.
 - 1.7.6** Aurreko analisiaren emaitzaren arabera, hedatze eta eskalatze sistematika bat izatea.
-



Erronka:

**Osasuna sustatzea
eta gaixotasunak
prebenitzea**

2

2.1

Bizimodu eta bizi-ohitura osasungarriak

Egoera

Osasuna sustatzearen aldeko kulturak lekua hartzen jarraitu behar du herritarren artean. Kultura horrek aurrera egin behar badu, lehenetsi egin behar dira Osasun Sailaren 2013-2020ko Osasun Planean jasotako osasun publikoko politikak diziplina anitzeko ikuspegi batetik.

Helburua

Zenbait gizataldetan osasuna hobetze aldera, haiengan ohitura osasungarriak sustatzea Osasun Sailarekin koordinaturik.

Ekintzak

- 2.1.1 Osasunerako heziketa-programak zabaltzea.
- 2.1.2 Haurrei, helduei eta adinekoei zuzendutako nutrizio-programak sustatzea, bai eta elikadura osasungarrirako ekimenak ere.
- 2.1.3 Aurrera egitea eskoletako osasuna sustatzeko programekin.
- 2.1.4 Zahartze osasungarrirako programak hedatzea.
- 2.1.5 Preskribatu Bizitza Osasungarria (PBO) programa ezartzen jarraitzea.

2.2

Prebentzioko populazio-programak

Egoera

Nahiz eta hein handi batean badauden ezarrita prebentzio espezifikoa egiteko populazio-programak, komeni da gizatalde jakin batzuekin haratago joatea, gizarte desberdintasunak direla-eta eragin gutxiago izaten baitute programa horiek haiengan.

Helburua

Osasun Sailarekin batera, prebentzio espezifikoko programa ezberdinak indartzea, osasunean desberdintasun sozialak murrizteko ikuspegitik, eta, era berean, dieta, tabakoa eta alkoholarekin lotutako prebentzio-programak sustatzea.

Ekintzak

- 2.2.1 Adin txikikoen eta helduen txertaketa egutegiaren berrikuspen eta eguneratzeak zabaltzea.
- 2.2.2 Betetze-maila handiagoa lortzea gripearen aurkako txertaketaren xedeko gizataldeen artean.
- 2.2.3 Haurren obesitatea prebenitzeko plana zabaltzea.
- 2.2.4 Eskuragarriago jartzea gizatalde pobreenei Haurren hartzak zaintzeko programa (PADI).
- 2.2.5 Hurrei eta adinekoei egindako tratatu txarren prebentzioan aurrera egitea.
- 2.2.6 Lanean jarraitzea Genero-indarkeriaren prebentzioan, bereziki genitalen mutilazioaren prebentzioan.
- 2.2.7 Aurrera egitea GIBa eta Sexu-transmisioko beste infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko planarekin.
- 2.2.8 Adikzioen VII. plana garatzen jarraitzea, batez ere tabakismoaren eta alkohol-hartzearen prebentzioan.
- 2.2.9 Osasunaren alorrean, bazterketa- eta marjinazio-egoeran egon daitezkeen gizataldeekin prebentzioa egiteko programak garatzea.
- 2.2.10 Suizidioa prebenitzeko protokoloa hedatzea.

2.3

Baheketako populazio-programak

Egoera


Aski frogatua dago baheketa programak egokiak direla murrizteko zenbait minbizi mota agertzearen ondorioak; hortaz, programa horietan sakontzen jarraitu beharko da, Osasun Sailaren ildoekin bat etorriz, jomugan egon behar diren gizataldeei zein funtzionamendua hobetzeari dagokienez.

Helburua

Baheketa programen xede-populazioa zabaltzeko lanak gauzatzea eta programen prestazioak eguneratzea.

Ekintzak

- 2.3.1** Bularreko minbizia bahetzeko programa bultzatzen jarraitzea (elkarteeekin eta beste gizarte eragile batzuekin hartu-emanak sustatuz, populazio zabalagora helduz eta txostena Osasun Karpetan sartuz).
- 2.3.2** Kolon eta ondesteko minbizia bahetzeko programa aurrera eramaten jarraitzea.
- 2.3.3** Umetoki-lepoko minbizia bahetzeko programa ezartzea.
- 2.3.4** Jaio aurreko eta jaioberrien baheketa programak bultzatzen jarraitzea (metabolopatiak, gorreria...).



Erronka:
Integrazio
asistentziala eta
kronikotasuna

3

3.1

Arreta integratua

Egoera

Behin amaituta Osakidetzako integrazio estrukturalako prozesua, Lehen mailako arretaren eta Ospitaleko arretaren alorretan Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) eredupean egindakoa, eta ulerturik integrazio klinikorako bitartekoa ere izan dela, beharrezkoa da aurrerapausoak ematen jarraitzea profesionalen arteko eta erakundeen arteko sinergiak bilatzeko ekinean, koordinazioa eta pazientearen zainketa-jarraitutasuna bermatzeko.

Helburua

Arlo asistentzialen, eragileen eta profesionalen arteko arreta integratua bultzatzen jarraitzea, arretaren jarraitutasuna bermatzen dela eta herritarrengan osasun-emaizak hobetzen direla ziurtatzeko integrazio klinikoari garrantzia emanez.

Ekintzak

- 3.1.1** Lehen mailako arretaren rolari garrantzia ematea integrazioaren ikuspegitik, prozesu asistentzialaren kudeatzailea den heinean; batez ere, beharrik handiena duten gizataldeen kasuan (adinekoak eta kronikoak), kudeaketa eredu berriak erabilita.
- 3.1.2** Ospitaleak patologia konplexuen eta espezializazio maila handia eskatzen duten prozesu asistentzialen erreferenteak diren neurrian, Ospitaleko arreta zentralizatzea eta sendotzea.
- 3.1.3** Prebalentzia handieneko patologia kronikoetarako, asistentzia-ibilbideak maila korporatiboan sortzea eta aplikatzea; horretarako, zirkuitu eta baliabide asistentzialak pazientearen beharren arabera egokitu behar dira, helburuak eta elementu kritikoak identifikatu behar dira (adibidez, mina), eta osasun-emaizak jakinarazi eta ebaluatu behar dira.
- 3.1.4** Pazienteen asistentzia-jarraitutasuna bermatzea, Osakidetzako Erakundeekin Emergentzien integrazio funtzionala bideratzen duen eredu baten bitartez.
- 3.1.5** Arreta integratua finkatu eta egonkortzea Lehen mailako arretaren eta Ospitaleko arretaren artean, integrazio asistentzialeko prozesua indartuko duten kudeaketa-egiturak sustatuz.
- 3.1.6** Bidea eman "Alta unea" eta "Bizitzaren amaiera" erronkei; lehenetsunezkoztat jo dira IntegraSarea proiektuaren barne.
- 3.1.7** Integrazio egoera berriaren barne pazienteei zuzendutako zerbitzu eta jardueren eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak diseinuan sakontzea (kasurako, IEMAC, D'Amour eta IEXPAC, etab.).

3.2

Informazio klinikoko sistema integratua

Egoera

Osakidetzak beharrezkoa du informazio klinikoko sistemak integrazio-eredu asistentzialaren arabera egokitzen jarraitzea, eta horrez gain, teknologia berriak aprobetxatuz profesionalen elkarlanerako inguruneak eta lana antolatzeko modu berriak sortzea.

Helburua

Eremu asistentzialen, beste erakunde batzuen eta gizarte eragileen artean, informazio klinikoko sistema elebidunen integrazioaren ezarpena eta kontsolidazioa osatzea.

Ekintzak

- 3.2.1** Osabide Integra ikuspegia garatzea eta hedatzea, erregistro eta aplikazio kliniko guztiak integratzeko.
- 3.2.2** Osabide Global garatzea eta hedatzea ospitaleko arretako eta lehen mailako arretako historia klinikoen arteko konbergentziara heltzeko, eta prozesu bidezko elkarlana sustatzea paziente bakoitzeko plan individual bat garatzeko.
- 3.2.3** Aurrera egitea historia kliniko bakar eta elebidun bateranzko bidean. (1.4.4)
- 3.2.4** "Ohean datzatenak mugitzea" proiektua zabaltea eta mugitzeko zerbitzu berriak txertatzea erizainen eta beste profesional batzuen arloan.
- 3.2.5** Aurrera egitea historia farmakoterapeutiko bakarraren proiektuarekin; Euskadiko plan farmakologiko onkologiko integrala eta beste plan batzuk garatzen lagunduko duen egitasmoa da.
- 3.2.6** Lehen mailako arretaren eta Ospitaleko arretaren sistema kliniko-administratiboak bateratzea (zitaziorako leihatila bakarra). (1.2.6)
- 3.2.7** Historia soziosanitarioa garatzea, osasun-sistemaren eta sistema sozialaren arteko informazioaren elkarrengarritasuna sustatuz eta diagnostiko soziosanitariorako berariazko tresnak txertatuz (INTER-RAI). (3.6.4)
- 3.2.8** Informazio Sistemen (historia klinikoa barne) integrazioan aurrera egitea, egoitza sozialekin eta osasun arloko itundutako zentroekin. (3.6.3)
- 3.2.9** Telemonitorizazioa garatzeari ekitea (Teledesfibriladoreak, TeleEPOC, TeleIC, TelePLURI, TeleTAO eta TeleUPP, besteak beste).
- 3.2.10** Maila asistentzial desberdinetako profesionalen artean eta profesionalen eta pazienteen artean kontsulta ez-presentzialak bultzatzea.
- 3.2.11** Osareaneko zerbitzu-zorroa zabalitzen eta sustatzen jarraitzea. (1.3.4)

jarraitzen du ▶

3.2.12 Osasun Karpetaren eta Webeko aurretiko zitaren funtzionalitateak eta ohiko erabilera zabaltzea. (1.3.3)

3.2.13 Kudeatzaile talde korporatibo bat osatzea, aurrera egin dezaten informazioa ustiatzeko eta sarean lan egiteko sistemak aztertzeko, homogeneizatzeko eta birdiseinatzeko lanetan (kodetzea, aginte-koadroak, itxaron-zerrendak, laborategien plana, Osasun Sailaren Informazio Sistemak, etab.). (6.2.3)

3.3

Gaixotasun zehatzak dituzten gizataldeen arreta

Egoera

Behin identifikatuta pazienteen talde homogeneoak, proposatzen dena da asistentzialki gaixotasunari heltzeko modua aurretik adostea, asistentzia hori modu sistematikoan, ikuspegi integralarekin eta genero-perspektiba aintzat hartuta eman dadin.

Helburua

Elkarlanean aritzea pazienteen talde jakin batzuei emandako arretan, bai eta haien ebaluazioan eta hobekuntzan ere.

Ekintzak

- 3.3.1** Paziente kronikoen eta Kroniko konplexuen arreta planetan aurrera egitea.
- 3.3.2** Euskadiko Plan Onkologiko Integrala hedatzea.
- 3.3.3** Zainketa Aringarrien Plana hedatzea.
- 3.3.4** Gaixotasun neurodegeneratiboei heltzeko estrategia garatzea.
- 3.3.5** Min zorrotz eta kronikoa duten pazienteen arreta birdiseinatzea.
- 3.3.6** C hepatitis dutenei arreta egiteko strategiari jarraipena ematea eta diagnostiko goiztiarreko protokolo bat diseinatzea.
- 3.3.7** Gaixotasun arraroei heltzeko moduan aurrera egitea.
- 3.3.8** Euskadiko Genetika Plana hedatzea.

3.4

Erizaintza berrantolatzea

Egoera

Hainbat dira Osakidetzan martxan jartzen ari diren estrategia berriak, hala nola integrazio klinikoa, kronikotasuna, osasunaren sustapena eta prebentzioa, ikuspegi komunitarioa, teknologia berriak... Eta den-denak aurrera eramateko, adituak diren eta konprometitu dauden profesionalak behar-beharrezkoak dira, gai izan behar baitira erronka berri horiek erizaintzaren berezko zainketen muinean/oinarrietan txertatzeko.

Helburua

Erizaintzarako arreta eredua zehaztea eta garatzea Osakidetzan, eta horren bidez erizainei laguntzea gaur egungo eta etorkizuneko biztanleen osasun-premiei zein errealitate profesional berriari aurre egiten.

Ekintzak

3.4.1 Gogoeta egitea erizaintzak egoera eta erronka berrien aurrean duen rolaz, biztanleen osasunari dagokionez.

Ildo estrategikoak definitzea gai hauei begira:

- Erizainen rolean nabarmenaraztea erreferente gisa eta paziente kronikoen eta kroniko konplexuen jarraipenaren kudeatzaile gisa duten garrantzia, eta arreta jartzea etxex etxeko arretan eta/edo pazientearen bizilekuan emandakoan.

- Koordinazio asistentzian erizainek daukaten rolean sakontzea, pazienteen/pertsonen arretaren jarraitutasunean eragin dezaketen prozesuei edo une kritikoei dagokienez (esate baterako, ingresuak, altak, lekualdatzeak...).

3.4.2

- Haratago eramatea pazientearen eta erizainaren arteko harreman eredu berria, eta bide ematea erizaina modu askean hautatzeko aukerari, bai eta erizainak populazio jakin bati zerbitzu eman diezaiola ebazteko aukerari ere.

- Erizaintza erreferentea den prozesuak identifikatzea. Arreta integratuaren perspektibatik, erizaintzako kontsultak sustatzea osasuntsu zein gaixo dauden biztanleen erreferentziazko zainketa-beharrei erantzuteko.

- Komunitate-mailako trebetasunak garatzea.

3.4.3 Erizainen eskumenak garatzea zenbait medikamenturen eta osasun-produkturen preskripzioari/indikazioari dagokionez indarrean dauden legeen arabera.

3.4.4 Azttertzea erizaintzako espezialitateen garapena eta horien ezarpena Osakidetzan.

3.4.5 Elkarlaneko eredua garatzea eta sustatzea, diziplina anitzeko profesional desberdinez osatutako lantaldeetan oinarrituta, haien eskutik zehazteko eta ezartzeko osasun-arretako "forma" edo eredu berriak, kalitate eta jasangarritasun irizpideetatik abiatuta.

3.5

Osasun mental integratu baterantz

Egoera

Osasun mentala osasunaren funtsezko osagaia da, eta nahiz eta antolamenduari eta asistentziari begira sare espezializatuak aski garatuta dauden, une egokia da gogoeta egiteko, hartara osasun mentala erakunde guztien baliabideetan eta mailetan sartzeko, eta hori ez ezik, eredu komunitarioa paradigma asistentzial bezala sustatzeko ere.

Helburua

Lehen mailako baliabideen eta espezializatuko eta ospitaleko baliabideen koordinazio integralean sakontzea, patologia psikiatrikoei behar bezala heltzeko.

Ekintzak

- 3.5.1** Zahartzeari lotutako patologia mentalari heltzea
- 3.5.2** Osasun mentalean eredu komunitarioa sustatzea
- 3.5.3** Buruko nahasmenduen prebentzioa sustatzea eta gaixotasunari heltzea haur eta nerabeetan
- 3.5.4** Nortasunaren nahasmenduei are gehiago heltzea helduetan
- 3.5.5** Psikiatrian sortzen ari diren patologiei are gehiago heltzea: adibidez, Elikadura Portaeraren Nahasmenduak eta suizidioaren prebentzioa
- 3.5.6** Lehen mailako arretan, Buruko Nahasmendu Arruntari heltzeko eraginkorrak diren esku-hartzeak garatzea
- 3.5.7** Buruko nahasmendu larriari heltzea, paziente kroniko konplexua estratifikatzeko modukotzat harturik eta ikuspegi soziosanitario batetik baliabideen plangintza eginik, arreta indibidualeko planen testuinguruan; kontuan izanik, baita ere, Oneratze Eredua.
- 3.5.8** Osasun mentalaren alorrean, zerbitzuen eta jardueren eraginkortasuna ebaluatuko duten adierazleak diseinatzea.
- 3.5.9** Aztertzea zer modutan koordinatu daitekeen hobekien ospitaleko arreta gainontzeko osasun mentalarekin.

3.6

Koordinazio soziosanitarioa

Egoera

Arlo soziosanitarioan koordinatzea ezinbestekoa da behar soziosanitarioak dituzten pertsonak behar bezala ulertzeko eta haiei arreta eraginkorra emateko; normalean, adinekoen, pluripatologikoen eta kronikoen sektorean batu ohi dira behar horiek. Haiek artatzeko, trebetasun asistentzial berriak bereganatzeaz gain, profesionalak elkarlanean aritu behar dira gizarte-zerbitzuekin, eta sortu egin behar dira elkarreragingarriak diren informazio-tresnak ere.

Helburua

Koordinazio soziosanitarioa bultzatzea erakundeen gizarte-zerbitzuen alor desberdinen artean zein Osakidetzako zerbitzu-erakundeen artean, populazioaren araberakoagoa eta integratzaileagoa den ikuspegi batetik.

Ekintzak

- 3.6.1** Adinekoen Arreta Plana (AAP) hedatzea.
- 3.6.2** Adinekoei egindako tratu txar fisikoak eta ekonomikoak antzemateko tresnaren ezarpena osatzea.
- 3.6.3** Osabide hedatzen amaitzea adinekoen eta desgaitasun bat dutenen egoitzetan. (3.8)
- 3.6.4** Historia soziosanitarioa garatzea eta ezartzea. (3.7)
- 3.6.5** Koordinazio soziosanitarioa bultzatzen jarraitzea, Batzorde Soziosanitarioen (BSS) eta Lehen Mailako Arretako Talde Soziosanitarioen (LMATSS) bidez eta asistentzia-ibilbideak eratuz.
- 3.6.6** Arlo soziosanitarioan arreta esparru berriak sortzea: pediatria-adinekoentzako Arreta Goiztiarra, desgaitasun intelektuala eta sentsoriala dutenen arreta, bizi-kalitatea mendekotasun eta ahulezian, besteak beste.
- 3.6.7** Aginte-koadroa definitzea arreta soziosanitarioari lotutako adierazleak identifikatzeko.

3.7

Preskripzioaren erabilera egokia

Egoera


Historia farmakoterapeutiko bakarrarekin egindako aurrerapausoen ostean, beharrezkoa da sarean elkarlanean aritzeko lan-eredua garatzen jarraitzea, konektatuta egon daitezen farmazia zerbitzuetako profesionalak, Osakidetzako erakundeetako gainerako zerbitzuetako profesionalak, Osasun Saila eta farmazia komunitarioak, osoko ikuspegi batetik, medikamentuen erabilera zentzuzkoa egiten lagunduko duten akordioetara heltzeko.

Helburua

Medikamentuen zentzuzko erabilera sustatzea ikuspegi integral eta koordinatu batetik, eta aurrera egitea historia farmakoterapeutiko bakarrarekin. Horretarako, informazioa ustiatzeko eta aztertzeko sistema korporatibo bat ezarriko da eta medikamentuen erabilera homogeneorako mekanismoak aplikatuko dira.

Ekintzak

- 3.7.1** Medikamentuen datu-base eta preskripzio sistema korporatiboak kudeatzea.
- 3.7.2** Preskripzioan laguntzeko tresna berriak txertatzea (giltzurruneko gutxiegitasuna; gibelego gutxiegitasuna; geriatría, pediatria eta antzeakoetarako gomendioak), eta aurretik daudenak garatzen jarraitzea.
- 3.7.3** Paziente onkologikoaren prozesu farmakoterapeutikoaren modulu korporatiboa garatzea eta ezartzea.
- 3.7.4** Eguneko ospitaleko preskripzioa historia klinikoan txertatzea.
- 3.7.5** Farmazia anbulatorioaren eta Presbideren zabalkundea osatzea ospitaleko arretan.
- 3.7.6** Medikamentu arriskutsuen erabilera identifikatzea eta kudeatzea.
- 3.7.7** Preskripzioen informazioa asistentzia-esparru desberdinen artean bistartzeko eta integrazeko era hobetzea.
- 3.7.8** Farmaziako aginte-koadro korporatibo bat sortzea.
- 3.7.9** Medikamentu berrien posizionamendu terapeutikoak eta ospitaleko prestazio farmazeutikoan sartutako indikazio berriak ezartzea.
- 3.7.10** Gida korporatiboetan aurrera egitea.
- 3.7.11** Tratamenduen egokitzapenerako eta berrikuspenerako estrategietan ekarpenak egitea.
- 3.7.12** Aurrera egitea medikamentuen bateratzeekin eta atxikidurekin, kontuan izanda, baita ere, farmazia-bulegoak.
- 3.7.13** Printzipio aktiboaren araberako preskripzioarekin jarraitzea.
- 3.7.14** Koordinazioa hobetzea farmazia komunitarioko bulegoekin, Farmazialarien Elkargoekin adostutako hitzarmenen bidez.
- 3.7.15** Farmaziako Batzorde Korporatiboa bultzatu eta sendotzea, Zuzendaritza Nagusiak, Osakidetzako Erakundeek eta Osasun Sailak osatutako elkarteak.



Erronka:

**Profesionalak
kudeaketa kultura
korporatiboa
sortzen**

4

4.1

Partaide izatearen eta nortasun korporatiboaren sentimendua

Egoera

Profesionalen leialtasuna lortzeko Osakidetzarekiko, korporazioaren partaide izatearen sentimendua indartu behar da haiengan. Kultura aldaketa hori gauzatzeko, honakoez osatutako plan bat jarri beharko da martxan: komunikazio-politikak, profesionali aitortza egiteko eta haien parte-hartzea eta inplikazioa lortzeko mekanismoak; langileen asebetetzea ebaluatzen mekanismoak, eta lidergo partekatuko estiloa. Horrez gain, ikuspegi integratzaile eta korporatiboranzko bidea egin beharko da erakundearen arlo guztietan.

Helburua

Osakidetzaren Korporazio izaera kontuan izanik, erakundearen partaide izatearen sentimendua sustatzea profesionalen artean, ezinbestekoa baita erakundearen eraldatze prozesuan. Hala izan dadin, sustatu egin behar dira komunikazioa eta parte-hartzea, sendotu Osakidetzaren balioak eta nortasun-ikurrak, eta estrategiak bultzatu humanizazioa lehentasuna korporatiboa izan dadin; betiere, erakundeko prozesu guztiak barne hartzen dituen osoko ikuspegi batetik.

Ekintzak

- 4.1.1** Pertsona multzoak, lan-taldeak eta liderrak kudeatzeko jarduerak aurrera eramatea (pertsonek kudeaketarako egindakoez gain), lan parte-hartzailea eta elkarlana baliatuz, baita gure profesionali aitortza egiteko jarduerak ere, Osakidetzaren proiektuarekin gehiago identifikatzen laguntzeko berebiziko tresnak baitira. Gure profesionalen lana goraiatzeko balioko duten programak eta esparruak sortzea.
- 4.1.2** Barne komunikaziorako tresnak ematea, eta profesionalen artean bata besteari kontsulta egiteko zein erabakiak batera hartzeko bideak erraztea, zenbait kanalen bidez: Enpleguaren ataria, Parte Hartu eta elkarlanerako gainerako tresnak. Horien bidez lortu nahi da langileek bere egunerokoan parte-hartzailego izatea.
- 4.1.3** Asebetetze-mailaren ebaluazioa sistematizatzea.
- 4.1.4** Lidergo korporatiboko eredua zabaltzea erakundearen maila desberdinetan, aurretik zehaztutako estiloari jarraiki. Estilo hori zedarritzeko, oinarri hartuko dira gure profesionalen aitortza egiten dieten eta aitortza egiteko modukotzat jotzen dituzten balioak, jarrerak eta portaerak.
- 4.1.5** Erakundean berdintasun plana sortu eta hedatzea, Osakidetzako emakumezko eta gizonezko profesionalen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-ikuspegia erakundearen arlo guztietan integratzeko. (4.5.8)
- 4.1.6** Profesional berrien harrera-prozesuan aurrera egitea, erakundearen balioen eta ezagutzaren transmisioa hobetzeko.

4.2

Profesionalen beharrak, oraingoak eta etorkizunekoak

Egoera

Giza Baliabideen plangintza egitea giltzarri da Osakidetzan gure egituren dimentsionamendurik hoberena lortzen laguntzeko, are gehiago kontuan hartzen baditugu antolamendu-egoera berria, herritarren premia berrietatik eratorritako prestazioak, belaunaldi aldaketa eta figura/profil profesional berrien sorrera.

Helburua

Giza Baliabideen dimentsionamenduaren azterketa abiaraztea zerbitzu-erakundeetan, profesionalen gaur egungo eta etorkizuneko premiak planifikatzen eta kudeatzen laguntzeko, eta horri esker, eskari asistentzialari erantzun egokia emateko.

Ekintzak

- Profesionalen aurreikuspeneko azterketak egitea, identifikatzeko zer giza baliabide behar den erantzun emateko belaunaldi aldaketari eta plantillan gerta daitezkeen soberakin/defizit egoerei, egungoak eta etorkizunekoak, kontuan izanik, besteak beste, aldagai hauek: sisteman baja izandakoak, BAMEa amaitutakoak, lanean hasi berriak...
- 4.2.1
- Zerbitzu-erakundeetan antolamendu-egituren berrikuspen eta homogeneizazio lanak egitea, abiapuntu izan daitezen pertsonal-egituren dimentsionamendurako lehen azterketak ahalbidetzeko eta zentroen arteko alderaketak egiteko.
- 4.2.2
- Giza baliabideetako premiak planifikatzeko sistema korporatibo bat zehaztea, Osakidetzaren antolamendu-egoera berriaren arabera giza baliabideak antzemateko aukera emango duena eta aldagai asistentzialak eta ekonomikoak ere kontuan hartuko dituen.
- 4.2.3
- Osakidetzako lanbide-profilak aztertzea prozesuen kudeaketa integratuko antolamendu-eredu berrira egokitu daitezen; horretarako, baloratu egin behar da beharrezkoa ote den lanpostu funtzionaletan doikuntzak egitea, erakunde sanitario integratuek eskatzen dituzten esparru funtzional berriei erantzun diezaieten.
- 4.2.4
- Ekintza hori, aldi berean, adierazitako egokitzapenen ondorioz egin beharreko hautaketa-prozesuen eta lanpostu-esleipenen berrikusketaren barne sartuko da.
- 4.2.5
- Lanpostu Funtzionalen Dekretua berraztertzea, bat etor dadin integrazioaren osteko Osakidetzaren antolamendu-egoera berriarekin, sortutako figura eta profil profesional berriekin, baita Bolonia Plana ezarri ondorengo titulazioen eskakizun berriekin ere.
- 4.2.6
- Giza Baliabideak Antolatzeko Plana berrikustea, behin dokumentuaren indarraldia amaitu denean.
- 4.2.7
- Horniketa Dekretuarekin bat etorritik, osasun-arloko buruzagitzetan Jarduna ebaluatzeko eredu bat zehaztu eta zabaltzea.

4.3

Enpleguaren kalitatea hobetzea

Egoera

Osakidetzak, erakunde publikoa eta Euskadiko enplegatzaile handiena den heinean, erantzukizun soziala hartzen du bere gain herritarrekiko, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa eskaintzeko ardura. Horretarako, lehenik, kontratazio politika dinamikoak izan behar ditu, Osakidetzak benetan behar dituen giza baliabideen araberakoak; bigarrenik, hautaketa eta horniketa prozedurak berraztertu behar ditu, arinagoak eta eraginkorragoak izan daitezen, eta hirugarrenik, aurrera egin behar du elkarrizketa sozialari dagokionez.

Helburua

Osakidetzan enpleguaren kalitatea hobetzea, neurri hauek hartuta: langileen kontratazio estrategiak garatzea, egonkortasuna areagotuko dutenak; hautaketa eta horniketa prozesuak arinago eta modu eraginkorragoan tramitatzea eta ebaztea, eta negoziazio kolektiboa sustatzea.

Ekintzak

- 4.3.1** Hautaketa eta horniketa dekretua diseinatu eta hedatzea, abiapuntua izan dadin hautaketa eta horniketa politikak eta prozedurak bizkorrago eta modu eraginkorragoan martxan jartzeko.
- 4.3.2** Enpleguaren kalitatea hobetzeko asmoarekin, kontratazio politika dinamikoak eta antolamendu-beharren araberakoak sustatzea, eta ondorioz, plantillei egonkortasun handiagoa ematea (Aldi baterako kontratazioaren akordioa berrikustea).
- 4.3.3** Osakidetzan aldi baterako kontratazioa hobeto kudeatzeko tresnak garatzea, hobeto planifikatzeko eta antolatzeko eta arinago eta modu eraginkorragoan kudeatzeko lagungarri direnak (kontratazioaren funtzionalitate berria zabaltzea Enpleguaren atarian, Planigune...).
- 4.3.4** Langileen hautaketa eta horniketa prozesu berriak garatzea (EPEak eta Le-kualdatze-lehiaketak).
- 4.3.5** Aurrera egitea elkarrizketa sozialean eta lan-baldintzen akordioa jorratzea.

4.4

Profesionalen trebakuntza

Egoera

Osakidetzak bermatu egin behar die langileei trebatzeko eta birziklatze profesionala egiteko aukera. Horretarako, profesional talde bakoitzaren beharrei egokitutako programak zehaztu eta hedatu behar ditu (prestakuntza-ibilbidearen eredian oinarrituta), eta ezagutza zabaltzen eta elkarbanatzen lagunduko duten foroak sustatu.

Helburua

Gure profesionalen trebatze eta birziklatze profesionalaren alde egiten jarraitzea (prestakuntza-ibilbidearen eredia), ezagutza zabaltzen eta partekatzen laguntzen duten kanalak eta foroak sortuz.

Ekintzak

- 4.4.1** Lanpostuko trebakuntza sustatzea, prestakuntza-ibilbidearen barruan, eta proiektua kategoria desberdinetara zabaltzen jarraitzea.
- Lan egitea Jakinsarearako prestakuntza-baliabideak formatu desberdinetan sor daitezkeen. Batez ere, ikus-entzunezko erabilerrazak, profesionalen beharretara egokituak, denbora laburragoan egiteko modua izan dezaten (“quick learning”) zein behar duten unean erabiltzeko aukera izan dezaten (“just in time”). Hori guztia, profesionalen beren parte-hartzearekin.
- 4.4.2**
- 4.4.3** Jakinsarean ikaskuntza-sareak sortu daitezela lortzea, erakunde barruan irakasle izan daitezkeenak identifikatzeko eta ezagutza elkarbanatzen laguntzeko. Eta, aldi berean, Osakidetzan irakaslearen profila zehaztea.
- 4.4.4** Erakundeetan “aldaketa/eraldaketa erraztuko duten agenteak” egon daitezen, profesional horiei trebakuntza eman beharko zaie, erakundearen premiei erantzungo dien berariazko prestakuntza plana osatuz. Ikuspegi horri jarraiki, erakundearen kudeaketa-eremu zehatzetan (unitateak, sailak, etab.), helburu jakinei lotutako prestakuntzako esku-hartze integralak sustatuko lirateke.
- 4.4.5** Prestakuntzako eskaintza korporatiboa zehaztea, zerbitzu-erakunde guztiek erabili ahal izango duten Prestakuntza Katalogo Korporatibo homologatu bat sortuz.
- 4.4.6** Osakidetzan “giza faktorea” proiektuari zabalkundea ematen jarraitzea. (1.2.1)
- 4.4.7** Profesionalen artean jakintza banatzen eta elkartrukatzen lagunduko duten foroak sustatzen jarraitzea, sarean konpartitu ditzaten lana eta trebakuntza (6.1.9)
- 4.4.8** Osakidetzako langileen euskarazko ezagutza hobetzea (profesional elebidunen kopurua progresiboki handitzea; prestakuntza orokorrean euskararen presentzia handitzea), eta Osakidetzako langileentzat baliagarriak diren hizkuntza-baliabideak eta tresna informatikoak martxan jartzea (OSAbar). (1.4.2)

● jarraitzen du ►

- 4.4.9** Langileen kontratazioan aintzat hartu beharreko hizkuntza-irizpideak berrikusi eta eguneratzea.
- 4.4.10** Etengabeko ebaluazioak egin, Osakidetzako II. Euskara Planeko helburuen betetze-maila ezagutzeko.
- 4.4.11** Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietara zabaltzea Euskaliten eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Bikain ebaluazioa, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtzen dituen.

4.5

Enpresa osasungarria

Egoera


Osakidetzak ikuspegi integral eta integratu batetik kudeatu behar du bere langileen osasuna; hau da, Korporazioaren politika guztietan zeharkakoa izango den gai gisa hartu behar du. Horretarako, osasunaren kultura sustatu behar du, langileen ongizatearen alde egin, eta konpromisoa ere bere gain hartu, lantokietan erasoak prebenitzeko eta halakoren bat gertatutakoan babes emateko.

Helburua

Enpresa osasungarriaren eredia bultzatzea, giza baliabideetako politika korporatibo guztietan lan-osasuna txertatzen duten laneko ongizateko programak aplikatuz.

Ekintzak

- 4.5.1** Giza baliabideetako plana birdiseinatzea, kontuan harturik profesionalen lan-osasuna giza baliabideetako politika guztiak diseinatzean eta garatzean.
Batetik, kudeaketa sistema berrikustea, eta bestetik, erakundeen jarduera guztietan Laneko Arriskuen Prebentzioa (LAP) txertatzeko bidean aurrera egingo duen politika orokorraren alde egitea. Ildo beretik, kontratatutako kanpoko enpresek eta gure erakundearen presentean dauden ere arlo horretan derrigor bete beharreko baldintzak betetzen dituztela bermatu behar da.
- 4.5.2** Instalazio eta ekipamendu batzuek berez dituzten arriskuei dagokienez zein medikamentu arriskutsuak edo substantzia jakin batzuk erabiltzeagatik sor litezkeenak kontuan hartuta, horiek prebenitzeko neurriak berritzea, diseinu fasetik bertatik, arrisku horien eraginpean egoteko aukerak guztiz ezabatzeke edo gutxitzeke.
- 4.5.3** Aurrera egitea Lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemaren egiaztapenean eta barneko/kanpoko aitorpenean zerbitzu-erakunde guztietan, eta egiaztapen horretan OHSASetik ISOra trantsizioa gauzatzeko plangintza egitea.
- 4.5.4** Erakundearen lan egiten duten guztiak inplikatzeko Lan-arriskuen prebentzioko subjektu aktiboak izan daitezkeen. Aukera eman behar zaie, beraz, gai horretan trebatzeko, aurrera egin dezaten prebentzio programen integrazioan eta horiek kudeatzeko eta aplikatzeko arduraren. Horrez gain, ezartzen diren kontsultarako bitartekoak erabiliz parte hartu dezatela lortu behar da.
- 4.5.5** Bereziki zaintzea gure erakundearen babes gehien behar duten langile horiek (erasoak prebenitzeko plana), eta prebentzioa eta osasunaren sustapena zabaltzeko eremu berriak bilatzea.
- 4.5.6** Gure langileei eragiten dieten faktore psikosozialak hobeto identifikatzea eta baloratzea, haien segurtasuna eta osasuna areagotzeko berariaz sortutako prebentzio-neurri zehatzagoak planifikatzeko.
- 4.5.7** Berdintasun Plana garatu eta ezartzea.
- 4.5.8**



Erronka:
Kudeaketa
aurreratu
jasangarria eta
osasun sistemaren
modernizazioa

5

5.1

Eraginkortasun eta efizientzia asistentziala

Egoera

Beharrezkoa da jardunbide asistentzialaren eraginkortasuna osasun-emaizten arabera ebaluatzea, denen adostasunarekin, eta aintzat hartuz, edo, bidezkoa denean, lehenetsiz balio erantsia duten jardunbideak.

Helburua

Eraginkortasun eta efizientzia asistentziala hobetzea praktika asistentzialaren azterketa eginez.

Ekintzak

- 5.1.1** Osasun Sailarekin koordinatuta, osasun-emaiztak ardatz hartzen dituen osasun-zerbitzuen ebaluazioan sakontzea, metodologia parte-hartzaileak erabiliz eta adostutako gida, protokolo eta prozedurak garatuz.
- 5.1.2** Osasun-emaiztetan hobetu izanaren frogarik ematen ez duten teknologia eta praktika asistentzialetan inbertsioa kentzea.
- 5.1.3** Espezializazio-maila handia eta/edo expertise deritzonaren kontzentrazioa bultzatzea, zerbitzuak edo nodoak sarean garatuz korporazio-ikuspegiarekin, pazienteei kalitate handiagoko arreta eskaintzeko (adibidez, kirurgia onkologikoaren edo bihotzekoaren kasuan). Kontuan hartuko da zentro bat baino gehiagoko profesionalekin egitea.
- 5.1.4** Profesionalei babesa eta tresnak ematea (adierazleak, Informazio Sistemak, Object Business Intelligence (OBI) eta abar., arretaren kalitatea ebaluatzeko eta arreta hori osasun-emaizten arabera balioztatzeko.
- 5.1.5** Prozesu asistentzialei heltzeari dagokionez, Ebazpen azkarreko jardunbidea sendotzea.

5.2

Kudeaketa aurreratua

Egoera

Osakidetzak kudeaketa sistemak modernizatzearen alde egin du eta Kudeaketa Aurreratuko (ESI) Eredua hartu du erreferentziazkotzat. Horrez gain, Erakunde Sanitario Integratuetan antolatutako integrazio prozesu luzea aurrera eraman du, artean kontsolidatu beharrekoa.

Helburua

Aurrera egitea Osakidetzaren Kudeaketa Ereduan, erakundearen eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeko.

Metodologiak eta tresnak berrikusi eta optimizatzea, eta zerbitzuak eta estaldurak programatzea eta planifikatzea.

Erakunde Sanitarioen integrazioan sakontzea (kasurako, Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak).

Ekintzak

- 5.2.1 5.2.1 Kudeaketa Aurreratuko Ereduearen garapena eta ezarpena sustatzea.
- 5.2.2 ESlen antolamendu-eredu korporatiboan sakontzea (adibidez, Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak). (3.5.9)
- 5.2.3 Aurrera egitea Informazio asistentzialeko, Pertsonaleko eta Arlo ekonomikoko sistemen arteko integrazioan.
- 5.2.4 Osakidetzaren Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) eredua garatzea. Gizartearekiko konpromisoaren kudeaketa egitea, barne sarturik gizartearekiko konpromiso horren errendimendua zein gizartearen gogobetetasun-maila neurtzea.
- 5.2.5 Prestakuntza-ekintzak eta koordinaziokoak sustatzea, administrazioko, pertsonaleko eta arlo asistentzialeko kontratazioari dagokionez, helburu birekin, segurtasun juridikoa areagotzea eta erreklamazioak jasotzeko arriskua gutxitzea edozein jurisdikziotan: lanekoa, penala, zibila eta administrazioarekiko auziena; azken batean, administrazioaren ondare-erantzukizunari dagokiona.
- 5.2.6 Informazio sistemak berraztertu, eguneratu eta hobetzea: gripearen jarraipena, SIS (informazio sanitarioko sistemak) delakoen berrikuspena eta hobekuntza, Laborategien Planaren informazio sistema, Minbiziaren erregistroa, ONCOFAR.
- 5.2.7 Osakidetzako Erronka estrategikoen proiektuak hedatzea eta jarraipen sistema garatzea.
- 5.2.8 Metodologia eta kudeaketa tresnak berraztertu eta optimizatzea (Lean, prozesu bidezko kudeaketa, ISO ziurtapena, Joint Commission egiaztapena, Design Thinking, etab.)

5.3

Efizientzia eta modernizazio teknologikoa

Egoera

Osakidetzak parke teknologiko zabala du instalatuta, eta, testuinguru horretan, funtsezkoa du plangintza egitea eta behar bezalako finantzaketa bideraraztea.

Helburua

Berritze eta eguneratze teknologikoko planaren garapenean aurrera egitea eta finantzaketa estrukturala eta errepikaria zuzkitzea.

Berraztertzea eta optimizatzea instalatutako parke teknologikoa eta benetan beharrezkoa litzatekeen parke teknologikoa.

Teknologiaren eta elektromedikuntzaren integrazio errepikaria informazio sistema asistentzialekin.

Ekintzak

- 5.3.1 Teknologia arloan, programa asistentzial intentsiboen ekipamenduaren analisia eta plangintza egitea (adib., baheketa-programak).
- 5.3.2 Berritze eta eguneratze teknologikoaren plangintza egitea familien arabera: OTA, RX, Ekografia, Azeleragailu linealak eta abar.
- 5.3.3 Teknologia eskuratzeko modalitateak aztertzea, eta beharrezkoa bada, aldatzea, aintzat harturik asistentzian duten pisua, finantzaketa-premia, bizitza-ziklo teknologikoa, bizitza-ziklo osoaren balioztapena, etab.
- 5.3.4 Instalatutako parke teknologikoa eta unitateen arteko erabilera-intentsitatea aztertzea.
- 5.3.5 Elektromedikuntzaren eta asistentziako sistema informatiko korporatiboen arteko integrazioa bermatu eta osatzea.

5.4

Jasangarritasuna eta efizientzia energetikoa

Egoera

Eusko Jaurlaritzaren 178/2015 Dekretuak eta Europako Zuzentarauek energiaren arloan hobekuntza nabarmenak egitera derrigortzen dute, kontsumoetan aurrezteari, iturri berriztagarriez hornitzeari eta apenas kontsumorik duten eraikinak eraikitzeari dagokienez.

Helburua

Eusko Jaurlaritzaren Dekretuarekin bat datorren Jasangarritasun energetikoko plan bat jorratzea eta martxan jartzea Osakidetzan, eta hortik abiatuta progresiboki ezartzen joatea irizpide batzuk berde erosteko eta kontratatzeko, gai hori jasangarritasun energetikoaren oinarritzko elementutzat hartuta.

Ekintzak

- 5.4.1 Osakidetzan Jasangarritasun energetikoko plan bat ezartzea.
- 5.4.2 Eraikuntzan, instalazioetan eta mantentze-lanetan irizpide korporatiboak ezartzea eta aplikatzea.
- 5.4.3 Berde erosteko irizpide homogeen eta korporatiboak hartzea eta jardunean txertatzea.
- 5.4.4 Ingurumena kudeatzeko eta hondakinak kudeatzeko sistema bat ezartzea.

5.5

Jasangarritasuna eta aurrekontuen efizientzia

Egoera

Osakidetzak bere emaitza ekonomikoak orekatzeko eta sistemaren jasagarritasuna bermatzeko erronka du aurrean, hain zuzen ere, aurrekontu-egoera jakin batean lan egiten duen administrazio publikoko entea delako eta jardun-eremu horretan gero eta jarduera asistentzial handiagoaren beharra dagoelako. Baliabideen kudeaketan eraginkor izateko, jakina, ezinbestekoa da ekonomia eta osasun arloetako profesionalak elkarlan estuan aritzea, arlo estrategiko guztietan baliabideen erabilera efizientearekin zeharkako inplikazioa lortzera begira.

Helburua

Prestazio asistentzialen eta gastuaren arteko korrelazio-ratioak berrikusi eta aztertzea.

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzarekin lankidetzan aurrera egitea finantzaketa kapitatioarekin, bai eta emaitzen araberako edo bestelako formulen araberako ordainketa-ekimenekin ere.

Ekintzak

- 5.5.1** Arlo asistentzian, ekonomikoan eta pertsonalekoan, Aginte-koadroen azterketan eta eboluzioan sakontzea, hobetu beharrekoak argitzeko.
- 5.5.2** Zerbitzu-erakundearen arteko alderaketa egitea aurrekontuak betearazteko moduei dagokienez, eta gauzatutako jarduera asistentzialarekiko asimilazioaren konparazioa ere.
- 5.5.3** Sailarekin lan egitea erakundearen arteko desberdintasunen kausetan sakontzeko, per capita kostu osoaren hasierako azterketa batetik ondorioztatu daitezkeen kausetatik haratago.
- 5.5.4** Emaitzaren araberako ordainketa-ekimenen betearazpenen jarraipena egitea, bai arlo asistentzian (farmazia), bai asistentzialak ez diren beste arlo batzuetan sor daitezkeenak.

5.6

Kontratazio administratiboaren eredu berria

Egoera

Kontratazio administratiboaren alorrean, nahitaezkoa dugu prozedura eta irizpide korporatiboaren optimizazio eta homogeneizazioan sakontzea, bai eta nodoak sortzeko eta sareko lana bultzatzeko bidetik jarraitzea ere.

Helburua

Kontratazio prozesuak eta prozedurak hobetzea eta erosketen txikia optimizatzea Espedienteen Kudeatzaile korporatibo berri baten bidez.

Aurrera egitea eta optimizatzea Osakidetzako kontratazio administratiboa, irizpide korporatiboaren arabera eta tresna eguneratuak erabilita: kontratazio elektronikoa.

Erosketa zentralizatua eta erosketen korporatiboa hedatzea.

Ekintzak

- 5.6.1** Osakidetzan Espedienteen Kudeatzaile korporatibo berria ezartzea, kontratazio elektronikoarekin integratuta.
- 5.6.2** Kontratazio prozesuak eta prozedurak aztertu eta hobetzea, Europako Zuzentzauekin bat etor daitezkeen eta kontratu-figura berrietara egokitu daitezkeen (Administrazio-kontratu bereziak, Erabilgarritasun-ordainketa, etab.).
- 5.6.3** Erosketen analisia egitea eta tratamendu korporatiboa emateko proposak izan daitezkeen familiak edo taldeak identifikatzea (derrigor zentralizatua izan beharrik gabe).
- 5.6.4** Kontratazio txikia zehatz-mehatz aztertzea eta hobetze-plan bat egitea, fiskalizazioan eragin txikiagoa izateko eta erosketak baldintza hobetan egin ahal izateko.

5.7

Azpiegitura fisikoak berritzea eta modernizatzea

Egoera

Osakidetzak jarraitzen du sortzen, berritzen eta mantentze-lanak egiten, teknologia sanitario osoan zein hori gordetzeko azpiegituretan; betiere, herritarren gaur egungo beharrei erantzuteko, eskuragarri ditugun baliabide ekonomikoekin.

Helburua

Osakidetzaren sareko azpiegiturak eta baliabide teknologikoak garatzea eta hobetzea. Azpiegituren eta teknologiaren sarean mantentze-lanak etengabe egiten direla bermatzea.

Ekintzak

- 5.7.1 Alfredo Espinosa - Urdulizko Ospitaleko zerbitzuak martxan jartzea.
- 5.7.2 Eibarreko Ospitalea amaitzea eta inauguratzea.
- 5.7.3 Arabako Unibertsitate Ospitaleari dagokionez, ospitaleko zerbitzu orokorretarako eraikin berria eraikitzea.
- 5.7.4 Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia eta Bizkortze Bloke berriaren kontsolidazioa eta berrantolaketa egitea.
- 5.7.5 Biocruces Ikerketa Sanitarioko Institutuaren eraikin nagusia amaitzea eta martxan jartzea.
- 5.7.6 Osasun-zentro berriak irekitzea Murgian, Iralan, Retuertan, Alde Zaharrean eta Aieten (Donostia) eta Zallako osasun-zentro eta espezialitateen zentro berria zabaltzea.
- 5.7.7 5.7.7 Hiru lurralde historikoetako zentroetan teknologia eta ekipamendua berritzea: Azeleragailu linealak, Hemodinamika, OTA, RX eta abar.
- 5.7.8 5.7.8 Edukiontzia eta instalazioak berritzea eta eguneratzea: Iggailuak, Transformazio-zentroak eta Kaxa elektrikoak, Biderapenak, etab.
- 5.7.9 Tresna informatiko korporatiboak garatzea: Kontratazio elektronikoa, farmazia onkologikoa, biltegien kudeaketa, laborategia eta beste batzuk.
- 5.7.10 Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzako Institutuetarako beharrezkoa den euskarri informatikoa garatzea (BIOEF, Biocruces, Bionostia, Bioaraba eta Kronikgune), proiektuen kudeaketa, segurtasuna eta jarraipena era koordinatuan egitea zein sarean lanean aritzea ahalbidetzeko.
- 5.7.11 Apurka-apurka, osasun-arretako eraikin eta instalazioak egokitzea eta irisgarritasuna hobetzea.



Erronka:
Berrikuntza eta
ikerketa

6

6.1

Ikerketa eta berrikuntza sanitarioaren inpaktua

Egoera

Legegintzaldi honetan, osasun-sistemak Osasunean ikertzeko eta berritzeko estrategia 2020ren lau ardatzetan –Inpaktua, Integrazioa, Pertsonak eta Baliabideak– aurreikusitako jarduerak hedatzen amaituko du.

Lehenengo Ardatzaren (Inpaktua) helburua I+G+b-ko jarduerak ongi definituta egotea da, benetako beharrei zuzenduta, modu eraginkorrean kudeatuta eta elkarlaneko inguru batean eginda, haien emaitzek benetako inpaktua izan dezaten, bai osasun-sistemaren hobekuntza zuzenean (bere jasangarritasuna barne hartuz), pertsonen osasunaren hobekuntzan eta/edo Euskal Herriaren lehiakortasunean, gure inguruan aberastasuna sortzearen bidez.

Helburua

Osasun Saileko I+G+b estrategiaren hedapenean parte hartzea, ekintzak hedatuz hurrengo jarduerekin lotuta: ebaluazioa, prospektiban oinarrituta erabakiak hartzea eta ebaluazio teknologikoa, berrikuntzaren kudeaketa (transferentzia, ustiapena eta ezarpena barne), enpresa eta agenteekin lanean aritzea berrikuntza irekiko eredu baten esparruan, osasun-sistema izan dadin berrikuntzen “traktorea” eta Euskadiko ‘Research and Innovation Strategies for Smart Specialisations’ (RIS 3) estrategia biozientzien esparruan heda dadin.

Ekintzak

- 6.1.1** Lehentasunak eta/edo ikerkuntzako eta berrikuntzako erronkak identifikatzeko eta hautatzeko prozedurak ezartzea, eta jardueren ebaluazioa.
- 6.1.2** Egituratutako Zaintza teknologikoko eta benchmarkingeko sistema bat ezartzea, barne mailan zein kanpo mailan, onenengandik ikasi ahal izateko.
- 6.1.3** Ebidentzia eta ebaluazio teknologikoa sortzea eta/edo kudeatzea, erabakiak hartzean eta estrategia korporatiboetan laguntzeko (egokitasunaren eta egokitzapenaren ebaluazioa, Praktika Asistentzial eta Klinikoaren Egokitzapenaren hobekuntza (MAPAC), Praktika klinikoaren aldakortasuna, eraginkortasun eta efizientzia diagnostiko-terapeutikoa...).
- 6.1.4** Baliosasun berrikuntzako kudeaketa-eredua maila korporatiboan hedatzea eta ezartzea (erreferenteak, etapak, egiturak, lehenestea, zorroa, aginte-koadroa, ikuskaritzak, etab.), berrikuntza-mota guztien alde eginez (antolaketakoa, osasun-zerbitzuetan; biomedikoa; teknologikoa; soziala, etab.), horien bidez balioa sortzen jarraitzeko, nazio eta nazioarte mailan elementu bereizle bihurtzeko gaitzen.
- 6.1.5** Inguruko eragileekiko elkarlanean eta ko-sorkuntzan oinarritutako berrikuntza irekia hedatzen jarraitzea, eta, zehazki, Innosasun programa hedatzen jarraitzea.

- 6.1.6** Pazienteekiko eta herritarrekiko elkarlana eta ko-sorkuntza sustatzea.
- 6.1.7** Erosketa Publiko Berritzailearen tresna hedatzea.
- 6.1.8** RIS3ko lan-taldeetan aktiboki parte hartzea (horietan guztietan, Osakidetza ezinbesteko elementua baita), eta baita horietatik sortutako ekimenetan eta proiektuetan ere.
- 6.1.9** Profesionalen arteko foroak eta topaketak sustatzen jarraitzea, jardunbide egokiak partekatzeko eta ezagutza hedatzeko. (4.4.7)
- 6.1.10** Ebidentzian oinarritutako praktika klinikoko gidak eta gomendioak ezartzen eta/edo eguneratzen laguntzea.

6.2

Jarduera ikertzailea eta berritzailea lan asistentzian eta irakaskuntzako lanean

Egoera

Osasunean ikertzeko eta berritzeko estrategia 2020an, bigarren Ardatzaren (Integrazioa) helburua I+G+b jarduera Osakidetzako eguneroko funtzionamenduan jarduera normalizatu bat izatea da, beste edozein produkzio-lerro gisa, jarduera horiek garatzeko hobe den esparru batera eboluzionatzeko (hainbat jarduera sustatuz eta oztupoak ezabatuz edo murriztuz). Osakidetzak onak izateagatik ezagunak diren aktiboak ditu (antolaketakoak, informazio-sistemak, etab.), ikerkuntzarekin eta berrikuntzarekin integrazioa planteatzea posible egiten dutenak, estatu eta nazioartean zein kalitatearen arloan garagoko maila batean jarriko lituzkeen integrazioa.

Helburua

Estrategiaren hedapenean parte hartzea, Helburu Estrategikoak betetzeko aukera ematen duten ekintzak garatuz:

- ikerketa eta berrikuntzako agendak hautatzea eta hedatzea
- I+G+b-ko egituren gobernamendua
- Informazio-sistemak eta datu-iturri ezberdinak erabiltzea
- I+G+b-ko araudi-esparrua
- sistema irekia, konektatua eta nazioartekotua.

Ekintzak

- Interes-eremuetako ikerkuntzako eta berrikuntzako agendak hautatzea, I+G+b-ko programak diseinatzea eta estrategia korporatiboetara laguntzen dieten proiektuak sustatzea (MAPAC, Praktika klinikoaren aldakortasuna, eraginkortasun eta efizientzia diagnostiko-terapeutikoa...), beharrei eta interes-eremuei erantzun bat emateko (diabetesa, minbizia, 'big data', osasun-zerbitzuak, etab.), haien oinarri izateko eta horiek dituzten gaitasunak indartzeko, eta joera berriei heltzen laguntzeko. (6.1.3)
- 6.2.1
-
- I+G+b-ko egituren eta I+G+b-ko kudeaketaren egiturak, prozesuak, erantzukizunak, betekizunak eta abarren mapa hedatzea, horren eguneratzean parte hartuz, indartuz eta funtzionamenduak lagunduz.
- 6.2.2
-
- Datuekiko sarbidean, elkarreragingarritasunean, elkarrekintzan eta datuen tratamenduan aurrera egitea, informazioa ustiatzeko (kudeaketa klinikora, sanitariora, ikerkuntzara eta abarrera aplikatuta). (3.2.13)
- 6.2.3
-
- I+G+b-ko araudien garapenean kolaboratzea (emaitzen transferentzia eta ustiapena barne), bai eta araudien aplikazio eraginkorrean ere.
- 6.2.4

- - 6.2.5** Europako proiektuetan eta nazioarteko elkarlanetan aktiboki parte hartzea animatzea, bereziki, dagoeneko elkarlanerako akordioak dituzten edo izan ahal dituzten erakundeekin, eskualdeekin edo herrialdeekin, sistema irekitzen, besteekin konektatzen eta nazioarte maila kokatzen jarraituz.
-

6.3

I+G+b-ko jardueretan parte-hartzea suspertzea

Egoera

Osasunean ikertzeko eta berritzeko estrategia 2020ren hirugarren Ardatzaren (Pertsonak) helburua pertsonen I+G+b-ko jardueretan parte hartzea da, profesionaltasun, exijentzia eta aitortza maila handiagoa duen eta aldekoagoa den esparru batean, aukera emango duena bai profesionalen gaitasunak gehiago aprobetxatzeko, pazientearen mesedetan, bai osasun-sistema eraldatzeko eta modernizatzeko.

Helburua

Estrategiaren hedapenaren alde egiten duen kultura sortzea, aitortza-ekimenekin, gaikuntzarekin eta kudeaketa-laguntzarekin lotutako ekintza-planen bidez, eta hori guztia herritarren eta pazienteen inplikazioarekin I+G+b-ko proiektuen garapenean.

Estrategiaren hedapenean parte hartzea, Helburu Estrategikoak betetzeko aukera ematen duten ekintzak garatuz:

- I+G+b-ko jardueren aitortza egitea
- I+G+b-n gaitzea
- Laguntzea (administrazioko lanetan eta teknikoetan) langile ikertzaileei edo berrikuntzako garapenean inplikaturakoei
- Herritarren eta pazienteak inplikatzeko

Ekintzak


- 6.3.1** Lanean hasteko eta pertsonen hobekuntza profesionalerako eskatzen diren I+G+b-ko merezimenduen eskakizuna handiagoa izatea.
- 6.3.2** I+G+b-ko jardueren garapena erraztea.
- 6.3.3** I+G+b-ko jardueretan ari diren profesionalen aitortza egiteko planak ezartzea.
- 6.3.4** I+G+b-ko arloko prestakuntza-planak egitea eta egokitzea.
- 6.3.5** I+G+b-ren alde zein I+G+b-ko jarduerak dituzten profesionalen alde egiteko mekanismoak eta egiturak eguneratzea.
- 6.3.6** Herritarrekin eta pazienteekin biltzea eta haien parte-hartzea sustatzea, I+G+b ahalbidetzeko.



Eranskinak

Stakeholderen mapa edo Boterea/interesa matrizea

Gerry Johnson, Kevan Scholes



**Kimu berdeak /
Lortutako mugarriak**

Zer esaten digute?

*Sailaren Lerroak, Kudeaketa Aurreratuko Eredua, Kontratu Programa,
Osasun Plana, Plan Soziosanitarioa, I+G+b-ko Plana...*, arriskuak eta aldaketa esanguratsuak...



2013


2017

2020

IKUSPEGIA


**Ezin izan
gara iritsi**

Kimu berdeak / Lortutako mugarrak




Balioak OSAKIDETZA

Talde-lana, parte hartzea, gogoia, lidergoa (17)




Partaide izatearen sentimendua (5)




Berrikuntza, irekitzea, aldaketa, hobekuntza, kalitatea (15)



Gertutasuna, herritarra, komunitatea, zainketak, pazientea, erabiltzailea (18)



Profesionaltasuna eta pertsonak (10)



Gobernu ona, konpromisoa, konfiantza, etika, zintotasuna, erantzukizuna, elkartasuna, gardentasuna (24)

